

Euskal AEko merkatuko zerbitzuen sektoreko salmentak % 4,0 igo dira 2025eko lehen hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean salmentak % 0,9 igo dira

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko salmentak % 4,0 igo dira 2025eko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Hori guztia, Eustaten datuen arabera, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak kenduta. Sektore honetan Garraioa, Ostalaritza, Informazioa eta komunikazioak eta Enpresentzako zerbitzu-jardueren sektoreek eskainitako zerbitzuak kontabilizatzen dira.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, prezio finkoetan eta dagozkion urtaro-eraginak kenduta, salmentak % 0,9 igo dira 2025eko lehen hiruhilekoan.

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen indizearen urte arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Beste merkatu zerbitzuen indizea

Merkatuko beste zerbitzu batzuen barruan, salmenten urte arteko bilakaera % 9,7 igo da *Garraio eta biltegiatzearen sektorean*, % 3,1 *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen sektorean* eta % 2,3 *Informazio eta komunikazioen sektorean*. *Ostalaritzan*, aldiz, salmentak % 0,1 jaitsi dira, eta *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak* sektorean % 0,8.

2024ko azken hiruhilekoaren aldean, salmenten hiruhileko arteko igoera % 3,6koa izan da *Garraio eta biltegiatzean*; % 1,6koa *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan*; % 0,2koa *Informazioan eta komunikazioetan* eta % 0,1ekoa *Administrazio-jardueretan eta zerbitzu lagungarrietan*. Hala ere, *Ostalaritzan* salmentak % 1,3 murriztu dira hiruhileko artean.

insertatabla_21846

Lurralde historikoen arabera, positiboa izan da salmenten bilakaera urteko lehen hiruhilekoan, bai urte artean, bai hiruhileko artean. 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean, Araban hazkundera % 5,7koa izan da, Gipuzkoan % 4,3koa eta Bizkaian % 3,4koa. Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten igoera % 2,0koa izan da Gipuzkoan, % 0,8koa Araban eta % 0,4koa Bizkaian.

Euskal AEko Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko landunen indizea % 0,2 igo da 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean; aitzitik, 2024ko azken hiruhilekoaren aldean, enplegua % 0,1 jaitsi da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegi-efektuen serie zuzenduetatik eta hiru hilabete arteko aldaketetatik abiatuta kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % 95,31ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62